



LAZKAOKO
UDALA



ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Antzar Korrikalariak taldeak eta Lazkaoko Udalak, Lazkaoko VII. BIKOTEEN PROBA proba antolatuko du 2025eko Apirilaren 25ean iluntzeko 21:00etan.

Hauek dira, oro har, herriko kaleetako ibilbide lauean 5,1km-ko luzera izango. Bikotea mistoa derrigorrezkoa izanik, lasterketa guztia bikoteak batera egitea.

14 urte betetik izatea ere derrigorrezkoa izango da lasterketan parte hartzeko.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan nahi duen orok parte hartu ahal izango du, kategoria, sexua edo nazionalitatea kontuan hartu gabe eta atleta federatua izan edo ez.

Parte hartzaile kopurua gehienez 750ekoa izango da.

Lasterkari bakoitzak bere erantzukizupean parte hartzen du eta proba egiteko behar besteko maila fisikoa izango du.

3. ARTIKULUA – IZEN EMATEAK

Izen emateak martxoaren 1ean irekiko dira, eta apirilaren 24ean arratsaldeko 20:00etan itxiko dira. Beti ere, lehenago 750 dortsak betetzen ez badira.

3.1 – IZEN EMATE MODUA

Izen ematea internet bidez, doain, egin ahalko da helbide honetan: www.kronoak.com martxoaren 1etik aurrera. Internet bidezko izen emateak apirilaren 24ean (20:00tan) itxiko dira.

Aurrez izena ematea doain da parte hartzaile bakoitzarentzat.

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Dortsala jaso ahal izango dira, frogaren egunean bertan, 19:00tatik aurrera Udaletxeko arkupean.

NAN txartela aurkeztea derrigorrezkoa izango da dortsala Jasotzeko.





5. ARTIKULUA - LASTERKARIAREN POLTSA

Lasterkari guztiek ondorengo jasoko dute: dortsal-txipa. Froga bukatzerakoan, hainbat produktu egongo dira dastatzeko.

6. ARTIKULUA - DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Irteeran eta helmugan kontrolak egongo dira. Lasterkari guztiek derrigorrez alfonbretatik pasa beharko dute. Probatik automatikoki deskalifikatu egingo dira lasterkari hauek guztiak:

1. Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
2. Dortsaleko publizitatea aldatu edo estaltzen dutenak.
3. Beste lasterkari batena den dortsala edo txipa daramatenak.
4. Edizio honetarako eman zaion jatorrizko dortsala ez daramatenak.
5. Helmugan dortsalik gabe sartzten direnak.
6. Epaileen edo antolakuntzako jendearen aginduei kasurik egiten ez dienak.
7. Sailkapena iritzi honekin izango da: BIKOTEA ELKARREKIN SARTU BEHARKO DA, BIKOTEAREN AZKENEKO PARTAIDEA DENBORA MARKATZEN DUENA DA. Bi bikote artean enpate egon ezkeror beraien denborak gehitzen dira eta bi artean zatitu. Bikotea elkarrekin sartuko da helmugan, bestela deskalifikatuak geratuko dira edo antolatzaileen erizpidearen arabera, beste postutara baztertuak eta inolako saririk jaso gabe geratuko dira.
8. Bikoteak gehienez ordu bete edukiko du helmugara sartzeko.
9. Antolatzaileen erabakia izango da azkena.

Gogoratzen da baita ere erabat debekatuta egongo dela ibilbidean motordun ibilgailuak edo bizikletak ibiltzea antolakuntzakoak ez badira.

7. ARTIKULUA - PARTE HARTZAILEEN ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiek istripuen aseguru-poliza baten estaldura izango dute. Proba egite hutsaren ondorioz gerta daitezkeen istripuak estaliko ditu aseguru horrek eta inoiz ez ezkutuko gaixotasun edo akatsa, arduragabekeria, zabarkeria, legeak eta arauak ez betetzeagatik, hala nola lasterketa egingo den tokira joateko eta handik irteteko joan etorrietan sortutako istripuak direnean.

8. ARTIKULUA - MEDIKU LAGUNTZA

Ibilbidean zehar mediku eta anbulantziaren laguntza egongo da. Helmugan ere mediku laguntza egongo da. Antolakuntzak lasterkariei gomendatzen die proba egin baino lehen mediku azterketa bat egin dezatela eta kirol proba egiteak dituen arriskuak onartu ditzala parte hartzaile orok.





LAZKAOKO
UDALA



9. ARTIKULUA - SARIAK

1. Bikotea oroigarria eta saria
2. Bikotea oroigarria eta saria
3. Bikotea oroigarria eta saria

Herriko 1. Bikotea oroigarria

Parte hartzaile guztien artean sari desberdinen zozketak egingo dira

****Sariak ez dira pilatuko, bikote batek ezingo ditu bi sari jaso, zuzenean hurrengo bikoteak jasoko du.**

10. ARTIKULUA - DUTXA, ARROPAK JASOTZEA ETA APARKALEKUA

Dutxak eta aldagelak Joxe Miel Barandiaran Kiroldegian egongo dira, irteera eta helmuga puntuaren ondoan dagoena. Bertan utzi ahalko dira arropa edo bestelako poltsak lasterketa garaian.

11. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, izen ematea egiten duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Antzar Korrikalariak Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izen ematea egin dutenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabiltzeko, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Antzar Korrikalariak Taldeak duen helbidean (triantzar@yahoo.com).

Hemen kontuan hartu gabeko guztia IAAF Araudian aztertuko da.

